

# Osto-zabala, Motela, Beltza...


■ 260tik gora sagar klase sailkatu dituzte, Nafarroakoak bertakoa guztiak

ZENBAT sagar klase ezagutzen dituen galdetuz gero, Reineta sagarra eta Golden esango du denda ezta ogia erosteko ere bisitatzen ez duenak, Granny Smith, Royal Gala, Star King muturfinen batek, eta, baserritarra bada, errege sagarra, goiz sagarra, geza, sagar mina, udare sagarra izenak aterako dira. Ez gehiago, ez pentsa. Sagar klaseen inguruan beste misteriorik ez dagoelako, esango dute gehienek. Baina Astigarragako sagardogile zaharrena ere baietz harritu Nafarroako bertako 260tik gora sagar klase bereizi eta sailkatu direla entzuten badi! 260tik gora!!

1985ean hasi ziren Nafarroako Kudeaketarako Institutu Teknikokoak herriz herri, baserriz baserri, sagardiak bisitatzeko. Orduko zuzendari Joaquin Sanz de Galdeanori buruan sartu zitzaion errola egin behar zutela, sagar klase asko zéudela eta denak ezagutu beharra zegoela, eta sekula usteko ez zuten ondare botanikoa aurkitu zuten teknikariak. San Joan sagarra Goizuetako, Osto-zabala Arbizuko, Gran Alexandre Ziordia-ko, Motela Mugiroko, Beltza Otsagabiako, Naranjina Burutaingo... la herri guztietan topatu zituzten sagarrondoak halako edo honako ezaugarri berezia zutenak. Hark, baserri dotorearen atzealdean, kolore apartekoa, honakoak, larre urrun batean galdurik, zaporea; hori gogorra oso izurriteen aurrean, beste hau aparta labean egiteko, azukrea eta gurina apur batez. Bide bazterretan, uhaldeen inguruan, sastrakaz inguratuak, ondo zainduak... denetarik. Eta denak jaso zituzten. Kimuak esan nahi baita. Institutuak Sartagudan duen baratzean txertatu, eta hor eduki dituzte zuhaixkak loratu eta fruituak eman dituzten arte. Fruitu harrigarriak barietatearengatik.

## Sagar hauen dastatze ekitaldia

Atzo egin zuten sagar hauekin dastatze ekitaldia. Orain arte, germoplasma bankurako datuak aztertu dituzte Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Ingeniari-tza sailekoen laguntzarekin. Hau da, ADN atera diote sagar klase bakoitzari, informazio genetiko garrantzitsuena. Oro har, ehun ezaugarri inguru zehaztu dituzte, eta orain goxoak diren jakin nahi dute. Bada, gorri kolore izugarri bizi horrek sujeritzen duen zaporea ho-



Horretarako propio trebatuta dauden ikasle eta teknikariak dastatu zituzten atzo sagarrak Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

MIKEL UHARTE

renbesterako den, edo Reineta ematen duen sagartxo horien usainaren parekoa ote den barrukoa.

Lehen dastatzea ez zen oso zorionekoa izan. Bertan ziren teknikariak eta ikasle batzuk, propio aukeratuta jada trebatu direlako horrelakoetan. Otsagabiako Beltza izenekoa aparta zen benetan itxuraz: gorri distiratsua, mardula eta haragia fresko-freskoa, zukuia zeriola toki guztietatik. Itxurari hamar bat eman-gion norbaitek, dudarik ez. Baina lurrina zen neurtu beharreko hurrengoa

Orain arte, germoplasma  
bankurako datuak aztertu  
dituzte. Hau da, ADN atera  
diote sagar klase bakoitzari,  
informazio genetiko  
garrantzitsuena

eta... «eskasa» epaitu zuen teknikariak. Gero gozotasunaren laukitxoa bete behar zen eta... «ez behar hainbatekoa» botatu zuen, serio-serio, adituak. «Garrantzitsuena denak ondo aztertzea da, bakoitzaren ezaugarriak sailkatzeko», azaldu zuen Bernardo Royo NUPEko irakasleak, «hau da, hemengo sagar hauetan egon litezke fruituek orokorrean dituzten arazo zenbaitentzat erremedioa, dela oso gogorak direlako pipien aurka, edo orain ezagutzen ez diren zaporeak gordetzen dituztelako».

Laster olibondoekin -Arronitzen bada bertako barietatea- ere berdin egingo dute, eta gero mahastiekin -Burgiko Parrusa izenekoarekin, esate baterako-. Dena bukatzen dutenean, hor izango dituzte sagarrondoak, eta olibondoak eta mahastiak, desagertzeaz dauden animalien erreserba naturaletan legez.

Alberto Barandiaran

IRUÑA